

# MAZINGER Z

## ERAKUSKETA

### AIETE KULTUR ETXEA 2018

Urria 5 – Azaroa 4

#### Ordutegia

Astelehenak eta jaiegunak: itxita

Asteartetik ostiralera: 16:00-20:30

Larunbatak: 10:00-14:00 / 16:30-20:00 Igandeak: 10:00 – 14:00

Donostiako Fantasia eta Beldurrezko Zinemaldiaren eskutik, Donostia Kulturak “Mazinger Z” erakusketa aurkeztuko du Aiete Kultur Etxean.

Erakusketa hau Mazinger Zren Lagunen Elkartearekin eta elkarteko bildumagile eta presidenteordearekin egin da, Miguel Ruizekin.

Gainera, *Koji dut izena* proiektua gehitu zaio, David Muñozek zuzendua, Youtuben ikus daitekeen film labur eta fanzine bana egin dituen, hainbat ilustratzaileen laguntzaz. Marrakzi horietako batzuk Aieten daude ikusgai.

Judas Arrieta euskal artistak ilustrazioekin eta *art toy* eskultura batekin lagundu du. Bereak dira ere Mazingerren unibertsoaren amorratua dela agerian uzten duten erakusketaren diseinua eta giroa.

#### MIGUEL RUIZ LÓPEZ

Miguel Ruiz López bildumagilea eta Mazingerren Lagunen Elkarteko kidea da.

Badalonan bizi da, enpresaritza ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean, automobilen sektorean espezializatzeko, familiako tradizioak hauspotuta.

Txikitatik, beti izan da jostailuen munduaren zalea, bereziki japoniar robotei eta Mazingerrri buruzko guztian.

Espainiako jostailu-bildumagile handienetako bat da, eta Mazinger Zri buruzko 500 elementutik gora ditu: iruditxoak, liburuak, pelikulak eta promoziorako objektuak, 1975etik hasi eta egundaino luzatzen den epekoak.

## MAZINGER Z ETA GŌ NAGAI

Mazinger Z manga eta anime serie bat izan zen, Gō Nagai japoniar marrazkilari eta gidoilariak asmatua, eta garai hartako kultura herrikoiaeren ikono bihurtu zen.

Kiyoshi Nagai 1945ean jaio zen Wajiman, Japonian. Ezagunagoa da, baina, haren artista izena: Gō Nagai. Bera *mangaka* bat (Japonian istoriolarietarako deitzen duten modua) eta egile bat da, oparoa zientzia fikzioan, fantasian, beldurrean eta erotismoaren generoan, eta berrizailatzat jo izan da mangaren generoan. Mangaka bihurtzeko erabakia anaiak Osamu Tezukaren “Lost World” manga utzi zionean hartu zuen (Tezukak Astro Boy eta Printzesa Zalduna sortu zituen). 25 urte zituela eta gaitz larri baten ondoren, *Kuro no Shishi* asmatu zuen (Lehoi beltza, 1967).

1967an hasi zen lan profesionalean, Meakashi Polikichi eginez, baina ezagunago bihurtu zen Cutey Honey, Devilman eta Mazinger Z sortzeagatik. 1972an, Mazinger Z argitaratu zuen *Shonen Jump* astekarian, eta berehalako arrakasta izan zuen. Munduko ospea, berriz, 1972ko abenduaren 3an etorri zitzaion, anime istorio hori Fuji TV telebista katean eman ondoren.

Fikzioan, Mazinger Z protagonista batek gidatzen duen robot erraldoi bat da eta, era horretan, *metxa* delako generoaren oinarriak ezarri zituen. Metxa pilotu batek edo bik kontrolatutako tamaina handiko ibilgailu bat da; aldiz, robota bere kabuz mugitzen da. Ondoren, *Great Mazinger* eta *UFO Robo Grendizer* aurrekoaren segidekin jarraitu zuen. Geroago, itxuraldatzen den robotaren kontzeptua sortu zuen.

Pertsonaia ezagun honek auto pilaketa batean du sorburua, Gō Nagairi bururatu baitzitzaion ondo zegokeela robotean itxuraldatzen den auto bat eduki eta guztien gainetik jauzi egitea, trafikoa saihesteko. Bere bulegora heldu zenean, 18 metro altuko eta 20 tona pisuko robot horri buruzko jatorrizko mangan hasi zen lanean. Robota gazte batek gidatzen zuen, haren buruan txertatzen zen planeatzeko hegazkin batetik. Manga arrakastatsua izan zen, eta animazio seriea berehala hasi ziren prestatzen. Urte hartako abenduan bertan estreinatu zuten (1972), eta estreinatutako herrialde guztietan izan zuen arrakasta.

Mazinger Z, edo *Majingā Zetto* japonieraz, honela osatzen da: “Ma”, deabru esan nahi duena; “Jin”, jainkoa esanahiaz; eta “Ger” kemena adierazteko; “Z”, berriz, Go Nagairi ez zitzaizolako beste letrarik bururatu. Mazingerrek, hura gidatzen duen Kojirekin batera, mundura bakea eramateko asmatutako robot batek gaizkiaren kontra daraman borroka erakusten du. Pertsonaia nagusia, Mazinger Zko pilotua, Koji Kabuto deitzen da (‘kabuto’ japoniar kasko tradizional baten izena da).

Mazingerrek aldaketa erradikala ekarri zuen TVE-1eko orduko haur-telesailen aldean, adibidez, *Marco* eta *Heidi*. Mazinger gaizkiaren kontra borrokatzen zen. Gaizkia, berriz, “Infierno Doktorea”k, haren robot mekanikoei eta “Ashler Baroia” haren aliatuak hezurramitzen zuten. Indarkeriazko borroka zen, eta horrek gurasoen kritikak harrotu zituen. Ondorioz, 1976an, aurrez iragarri gabe, TVEk kendu egin zuen telesaila, eta *Orzoweirekin* ordezkatu, garai hartako beste klasiko bat.

## SOINU BANDA

*La maldad y el terror / Koji puede dominar. / Y con él, su robot, / Mazinger!*

Abesti ezagun hori Alfredo Garrido bilbotarrak kantatu zuen, letraren egilea ere bera baitzen. Besteak beste, *Marcoren* abestia ondu eta kantatu zuen; *Vickie el Vikingo*, *Pippi Calzaslargas* eta *La abeja Mayan* parte hartu zuen ere.

Garridok irudiak bistaratu zituen, eta ikusi zuena islatzen saiatu zen (jakin gabe abestiko japoniar letrak zer esaten zuen): robot batek mundura bakea ekartzeko gaizkiaren kontra daraman borroka eta Koji bere gidariarekin zuen harremana. Izan ere, ez zuen berak abestia kantatzea pentsatu, baina letra egin zuenean, japoniarrei onar zezaten bidalitako maketan bere ahotsa jarri zuen, eta esan zioten haren ahotsa aproposa zela horretarako, eta berak grabatzeko.

## MAZINGER Z INFINITY

2017ko *Mazinger Z Infinity* pelikula jatorrizko telesailaren segidako pelikula da, eta bertan protagonistak berreskuratu dira (Koji Kabuto eta Sayaka Yumi), baita gaiztoak ere (Infierno doktorea, Ashura baroia eta Brocken kondea); gainera, serie horretako robot ia guztiak ekarri dituzte, hasi Mazinger Ztik eta Afrodita Araino, ahaztu gabe hasierako ataletatik liluratu gintuzten robot erraldoi maltzurak, hala nola Garada K-7 edo Genocider K9. Ekoizpen handi bat da, animazio sistema hibrido bat darabilena: 2D metodo tradizionalak eta animazio digitaleko azken aurrerapenak nahasten ditu.

**Azaroaren 19an, arratsaldeko 19:00retan egongo da Aiete Kultur Etxean dohainik ikusgai.**

## MAZINGER Zren estatua

Cabra del Camp udalerrian (Tarragona), Mas del Plata urbanizazioan, 1978an eraikitako Mazinger Zren estatua gogoangarria kokatzen da; izan ere, telesaila urte horretan eman zuten RTVEn. Era horretan, robotaren munduko lehen estatua ofiziala bihurtu zen.

# MAZINGER Z

## EXPOSICIÓN

**CENTRO CULTURAL AIETE 2018**

Octubre 5 – Noviembre 4

### Horario

Lunes y festivos: cerrado

De martes a viernes: 16:00-20:30

Sábados: 10:00-14:00 / 16:30-20:00 Domingos: 10:00 – 14:00

De la mano del Festival de Cine Fantástico y de Terror de San Sebastián, Donostia Kultura presenta la exposición “Mazinger Z” en el Centro Cultural Aiete.

Esta muestra se ha realizado con la asociación de Amigos de Mazinger Z y el coleccionista y vicepresidente de la misma, Miguel Ruiz.

Además, se ha sumado el proyecto *Mi Nombre es Koji* dirigido por David Muñoz, que ha realizado un cortometraje que puede verse en youtube y un fanzine con la colaboración de múltiples ilustradores. Algunos de estos dibujos se pueden ver en Aiete.

El artista vasco Judas Arrieta colabora con ilustraciones y una escultura de *art toy*. También es suyo el diseño y ambientación de la exposición que refleja su pasión por el mundo de Mazinger.

### MIGUEL RUIZ LÓPEZ

Miguel Ruiz López coleccionista y miembro de la Asociación de Amigos de Mazinger, reside en Badalona y estudió ciencias empresariales en la Universidad de Barcelona para especializarse después en el sector automovilístico, motivado por la tradición familiar.

Desde pequeño, siempre ha sido aficionado al mundo del juguete, especialmente todo aquello relacionado con robots japoneses y Mazinger. Es uno de los mayores coleccionistas de juguetes de España y cuenta con más de 500 artículos de todo tipo relacionados con Mazinger Z, ya sean figuras, libros, películas u objetos promocionales, abarcando un largo periodo de tiempo desde el año 1975 hasta la actualidad.

## MAZINGER Z Y GŌ NAGAI

Mazinger Z fue una serie de manga y anime creada por el dibujante y guionista japonés Gō Nagai que se convirtió en un icono de la cultura popular de la época.

Kiyoshi Nagai nació en 1945 en Wajima, Japón. Es conocido bajo su nombre artístico de Gō Nagai. Es un *mangaka* (palabra usada en Japón para referirse al historietista) y prolífico autor de ciencia ficción, fantasía, terror y erotismo japonés, reconocido como un innovador del género de manga. La decisión de convertirse en mangaka le vino a la cabeza cuando su hermano le prestó el manga de *Lost World* de Osamu Tezuka (creador de *Astro Boy* y *La Princesa Caballero*). A los 25 años, y tras una grave enfermedad, creó *Kuro no Shishi* (León Negro, 1967).

Hizo su debut profesional en 1967 con Meakashi Polikichi, pero sería más conocido por crear *Cutey Honey*, *Devilman* y *Mazinger Z*. Fue en el año 1972 cuando publicó *Mazinger Z* en el semanario *Shonen Jump*, con un éxito inmediato. El reconocimiento mundial llegaría tras la transmisión del anime de la historieta el 3 de diciembre de 1972 por el canal de televisión Fuji TV.

En la ficción, *Mazinger Z* fue el primer robot gigante tripulado por un protagonista, marcando las bases del género mecha, un vehículo de gran tamaño controlado por uno o más pilotos mientras que un robot se mueve por cuenta propia. Después continuaría con las secuelas *Great Mazinger* y *UFO Robo Grendizer*. Más tarde introduciría el concepto de robot transformable.

El origen del popular personaje se origina en un día en el que Gō Nagai se encontraba en un embotellamiento y se le ocurrió la idea de que sería bueno tener un coche que se transformara robot y pudiera saltar para evitar el tráfico. En cuanto llegó a su oficina comenzó a trabajar en el manga original sobre este robot gigante de 18 metros de alto y 20 toneladas de peso, que era conducido por un joven que acoplaba un planeador gigante a su cabeza. El manga fue un éxito y la serie de animación comenzó a prepararse enseguida, estrenándose en diciembre de ese mismo año (1972) y triunfando en todos los países en los que se estrenó.

*Mazinger Z* o *Majingā Zetto* en japonés, es la unión de “Ma” que significa demonio y “Jin” que significa dios y “Ger” de energía y “Z” porque a Go Nagai no se le ocurrió otra letra. *Mazinger* refleja la lucha contra el mal de un robot concebido para llevar la paz al mundo en unión con Koji, que lo tripula. El personaje principal y piloto de *Mazinger Z* se llama Koji Kabuto (‘kabuto’ es el nombre de un casco tradicional japonés).

*Mazinger* supuso un cambio radical respecto a las series infantiles de TVE-1 como *Marco* y *Heidi* de entonces. Era una serie de acción donde *Mazinger* luchaba contra el mal, encarnado en el “Doctor Infierno”, sus robots mecánicos y su aliado el “Barón Ashler”. Era una lucha con violencia que generó críticas y quejas de los padres y madres, por lo que en 1976, sin avisar, TVE retiró la serie que fue sustituida por *Orzowei*, otro clásico de la época.

## LA BANDA SONORA

*La maldad y el terror / Koji puede dominar. / Y con él, su robot, / Mazinger!*

La conocida canción fue cantada por el bilbaíno Alfredo Garrido, autor también de la letra. Entre otras, compuso y cantó la canción de *Marco* y participó en las de *Vickie el Vikingo*, *Pippi Calzaslargas* o *La abeja Maya*.

Garrido visionó las imágenes e intentó reflejar lo que vio (sin saber lo que decía la letra japonesa de la canción), la lucha contra el mal de un robot concebido para llevar la paz al mundo y la relación con Koji que lo tripulaba. De hecho, no pensó en interpretar la canción, pero cuando hizo la letra le puso la voz a la maqueta para enviarla a los japoneses para que la aprobaran, y le dijeron que su voz era perfecta, y que la grabara él.

## MAZINGER Z INFINITY

La película *Mazinger Z Infinity* de 2017, es una continuación de la serie original en la que recuperamos a los protagonistas (Koji Kabuto y Sayaka Yumi) y a los villanos (El Doctor Infierno, el Barón Ashura y el Conde Brocken); además de a casi todos los robots de la saga, desde el propio Mazinger Z a Afrodita A, sin olvidar a los malvados robots gigantes que nos fascinaron desde los primeros episodios, como el Garada K-7 o el Genocider K9. También incluye nuevos personajes como el Mazinger Z Infinity al que se refiere el título. Es una gran superproducción que utiliza un sistema de animación híbrido que mezcla los métodos tradicionales en 2D con los últimos avances en animación digital.

**El 19 de noviembre, a las 19:00h. se podrá ver la película gratuitamente en el Centro Cultural Aiete.**

## ESTATUA DE MAZINGER Z

En el municipio de Cabra del Camp (Tarragona), en la urbanización Mas del Plata, está ubicada la emblemática estatua de Mazinger Z construida en el año 1978, año en que se emitió la mítica serie en RTVE, convirtiéndose en la primera estatua oficial del robot en el mundo.